

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2022ko otsaila

Aurkibidea

1. EAEko BPGaren aurrerapena

2. Lan merkatua

3. Inflazioa

4. Enpresen konfiantza

5. Inguruneko hazkundera

6. NDFren aurreikuspenak

7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomia %5,5 hazi zen 2021ean.

Industriak eta merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak lortu zituzten gehikuntza handienak.

2. Enplegu tasa zertxobait apaldu zen laugarren hiruhilekoan.

Lan merkatuan pertsona gehiago sartu izanak langabezia tasa %9,9ra eraman zuen.

3. Inflazioak %6,4an itxi du 2021, 1990etik izan duen mailarik altuenean.

Argindarraren garestitzea beste produktu batzuetara hasi da igarotzen.

4. Enpresen konfiantza apur bat jaitsi da aurtengo hasieran.

Ziurgabetasunak ilundu ditu hasi berri den hiruhilekoari buruzko igurikimenak.

5. Munduko ekonomia berriz aktibatu zen 2021ean.

2022ko lehen hiruhilekoan, hazkunde erritmoan nolabait apaltzea gerta daiteke.

6. Munduko ekonomiaren susperraldia motelduko da.

NDFk beherantz zuzendu du 2022rako aurreikusten duen hazkundera, batez ere AEBetan eta Txinan.

7. Hilabeteko laburpena.

2021. urtea ona izan da eta ziurgabetasuna dago 2022rako



EAE-KO BPG-AREN AURRERAPENA

EAEko ekonomia %5,5 hazi zen 2021ean


BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

BPGA 4. HIRUHILEKOA

URTE ARTEKO TASA

%4,5



Eustatek iazko laugarren hiruhilekorako kontu ekonomikoen aurrerapena argitaratu du eta jarduera ekonomikoaren hazkundea %4,5 hazi zen epe horretan, urte arteko tasari dagokionez. Hiruhileko arteko tasetan, EAEko BPG %1,2 handitu zen. Datu hori ondoz ondoko seigarren hiruhilekoa da, hiruhileko arteko aldakuntza tasa positiboekin.

Hiruhilekoko informazio horrekin, 2021eko BPGaren balantzeak susperraldi

ekonomikoaren bidea deskribatzen du, eta, urteko batez bestekoan, hazkundea %5,5 zen. Eskaintzaren aldetik, industria eta merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldea dira hazkunderik handiena eskuratu zuten sektoreak. Barne eskariari dagokionez, inbertsioa da dinamismorik biziena izan zuen agregatua. Kanpo eskariak BPGaren hazkundeari egin zion ekarpena positiboa izan zen.


BPGA

Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa

BPGA 4. HIRUHILEKOA

HIRUHILABETE ARTEKO TASA

%1,2




ENPLEGUA GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

ENPLEGUA 4. HIRUHILEKOA

URTE ARTEKO TASA

%4,3



Lan merkatuari dagokionez, iazko laugarren hiruhilekoan enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %4,3 gehitu zen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hiruhilekoen arteko tasan, enplegua %0,8 hazi zen 2021eko laugarren hiruhilekoan.

2021. urte osorako, enplegua %5,2 areagotu zen. Urteko hazkunde tasa horrek 2021ean lanaldi osoko 47.000 lanpostu inguru sortu

zirela iradokitzen du. (KSEk lanpostuaren definiziotik kanpo uzten ditu aldi baterako enplegu erregulazioko espediente batean dauden pertsonak).

Datorren martxoaren 4an argitaratuko ditu Eustatek 2021eko laugarren hiruhilekoko BPGaren eta enpleguaren datu zehatzagoak.


ENPLEGUA GUZTIRA

Hiruhilabete arteko aldakuntza tasa

ENPLEGUA 4. HIRUHILEKOA

HIRUHILABETE ARTEKO TASA

%0,8



Iturria: Eustat.

Enplegu tasa zertxobait apaldu zen laugarren hiruhilekoan

ENPLEGU TASA. 16-64 URTE


BITARTEKOA.

Ehunekoa

4. HIRUHULEKOKO TASA

%68,1

BJAren 2021eko laugarren hiruhilekorako zenbatespenaren arabera, aldi horretan aurreko hiruhilekoan baino 2.200 pertsona gutxiagok izan zuten enplegua. Okupazioaren jaitsiera txiki horren ondorioz, 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren enplegu tasa, lan egiteko adina deitzen denarena, alegia, bi hamarren jaitsi zen, hirugarren hiruhilekoan izandako %68,3tik laugarreneko %68,1era. Generoaren araberrako azterketak adierazten du okupazioaren eta enplegu tasaren




murritzeta gizonen artean kontzentratu zela, eta emakumeen kopuruak ez zirela ia aldatu aurreko hiruhilekoaren aldean. Zehazkiago adierazita, emakumeen enplegu tasa %65,2 izan zen berriz ere, bere maximo historikotik hamarren batera bakarrik dagoena. Aitzitik, gizonen tasa %71,4tik %71,0ra jaitsi zen. Horrela, eten egin da adierazle horren suspertzeko joera eta urrundu egin da 2019ko hiruhilekoetan, pandemia hasi aurretik, erregistratu zituen balioetatik.

ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

EMAKUMEA


Ehunekoa



ENPLEGU TASA 16-64 BITARTEKOA.

GIZONAK

Ehunekoa




Bestalde, langabezia tasak puntu bat egin zuen gora hiruhileko horretan, neurri batean arestian aipatutako enpleguaren jaitzieragatik, baina bereziki biztanleria aktiboaren hazkundeagatik, ia 10.000 pertsona gehitu baitziren lan merkatura, gehienak emakumeak. Horrela, langabezia tasa osoa %9,9ra igo zen, emakumeena %10,4an kokatuta eta gizonen tasa %9,5era igota.

Langabezia tasaren igoerak eragin handiagoa izan zuen atzeritarren artean, bi puntu baino gehiagoko igoera izan baitzuen, tasa %23,9an kokatu arte, biztanleria nazionalaren %8,4aren aldean.


LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoak




LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoak



LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoak




Iturria: Eustat.

INFLAZIOA

Inflazioak %6,4an itxi du 2021, 1990etik izan duen mailarik altuenean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Euskadiko KPIa %6tik gora igo zen abenduan, eta azken hogeita hamar urteetako baliorik handiena markatu zuen. Igoera horren arrazoi nagusia argindarraren garestitze garrantzitsua da. Zehazkiago adierazita, urteko inflazio tasa 1,3 puntu igo zen azaroan erregistratu zen tasarekin alderatuta, eta, beraz, urte osoko batez besteko erregistroa %3,1 izan zen, 2011tik lortzen ez zen balioa baita.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2020	2021	2021eko abendua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	6,4	6,4
Azpiko inflazioa (%80,5)	0,8	1,0	2,2	1,8
- Elikagai landuak (%16,7)	1,7	1,4	3,4	0,6
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	1,0	2,0	0,5
- Zerbitzuak (%40,2)	0,8	0,7	1,9	0,7
Hondar inflazioa (%19,5)	-4,0	12,1	23,5	4,6
- Landu gabeko janariak (%9,5)	4,0	2,6	6,1	0,6
- Energia (%10,0)	-9,4	21,3	40,0	4,0


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Horrela, 2021. urtean aipatu den %6,4rekin amaitu zen inflazioaren ibilbidea, prezioek goranzko joera garbia erakutsi ondoren. 2020a indize negatiboarekin itxi ondoren, pandemiaren murrizketek kontsumoari eragin zioten in-paktuagatik, atonia mantendu egin zen urtarri-lean eta otsailean, baina martxoan etengabeko igoera hasi zen, urteko azken hiru hilabeteak nabarmen handituz. Urteko lehen erdian KPIa-

ren igoera produktu energetikoen prezioen igoeraren emaitza izan zen, baina azken hilabeteetan bigarren fase batera igaro da, eta igoera hori gainerako produktuetara ere igarotzen ari da, batez ere elikagaietara eta industria ondasunetara, azpiko inflazioak izan zuen goranzko joerak erakusten duenez, %2,2ra iritsi baitzen. Prezioen hedatze hori normaltzen joan liteke energiaren prezioak jaisten direnean.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa.

	Euskadi abendua	Espainia abendua	Euskadi urteko batez bestea	Espainia urteko batez bestea
INDIZE OROKORRA	6,4	6,5	3,1	3,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,7	5,0	2,0	1,8
Edari alkoholodunak eta tabakoa	1,7	1,6	0,4	0,3
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,0	1,0	1,0
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	24,1	23,3	11,3	11,1
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	3,2	2,1	1,9	0,9
Osasuna	1,3	0,9	0,8	0,7
Garraioa	10,2	10,9	7,3	7,4
Komunikazioak	-0,3	-0,3	-2,9	-3,0
Aisia eta kultura	1,5	1,7	-0,1	0,2
Hezkuntza	1,6	1,2	0,9	0,2
Jatetxeak eta hotelak	3,0	3,1	1,2	0,9
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	2,3	1,5	1,3	1,0

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

ENPRESARIEN KONFIANTZA

Enpresen konfiantza apur bat jaitsi da aurtengo hasieran


INEk argitaratu duenez, 2022ko lehen hiruhilekoan enpresen konfiantza indizea 127,4ko balioan kokatu zen, hau da, aurreko datua baino hiru puntu beherago. Serie honek jarraian izan duen bigarren jaitsiera da hori. Abagune ekonomikoaren inguruko ziurgabetasuna dela eta, pandemia hasi aurretik zegoen konfiantza maila ez da era-

bat berreskuratu. Horrek eragin berezia du hasi berri den hiruhilekoari buruzko igurikimenetan, posizio negatibora igaro baitira. Hala eta guztiz ere, amaitu berri den hiruhilekoari buruz enpresek egiten duten balorazioa apur bat positiboa da, hau da, gehiago dira ona izan zela uste dutenak kontrakoa uste dutenak baino.


ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. EUSKADI

LEHEN HIRUHILEKOAREN DATUA


127,4



AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA




HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



ENPRESARIEN KONFIANTZA INDIZE HARMONIZATUA. ESPAINIA

LEHEN HIRUHILEKOAREN DATUA


127,0




EAEko enpresek erakutsi duten konfiantza estatu osoan batez beste erregistratutakoaren antzekoa da. Horrela, lurralde horretan ere 127ko maila kalkulatu da, aurreko hiruhilekoan baino hiru puntu txikiagoa, eta indizea ere pandemia hasi aurreko balioetatik urrun dago. Hala ere, aipatu behar da oraingo indizea seriearen hasierako datua (2013ko lehen hiruhilekoa) baino 27 puntu handiagoa dela, zeinari 100 balioa esleitu baitzitzaion.

Amaitutako hiruhilekoari eta orain hasitakoari buruz egiten duten balorazioan ikusten da bi kasuetan enpresa ezkorrak baikorrak baino gehiago direla, eta, beraz, bi atalek zeinu negatiboa dutela. Baina amaitutako aldiari buruzko erantzunetan hobekuntza txiki bat dago; urtarri-lean hasten den hiruhilekoan, berriz, saldoa aurreko bi hiruhilekoetako baino nabarmen okerragoa da.

AMAITU BERRI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



HASI DEN HIRUHILEKOAZ DUTEN IRITZIA



Iturria: INE.

Munduko ekonomia berriz aktibatu zen 2021ean


TXINAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

TXINAKO BPGA 2021

%8,1

Jarduera ekonomikoaren 2021eko bilakaerari buruz argitaratutako lehen datuek erakusten dute joan den urtea susperraldi ekonomikoaren urtea izan zela. Nazioarteko ingurune konplexu baten hainbat proba eta pandemiaren etengabeko agerraldiak gorabehera, txertaketaren hedatzeak eta ekonomiaren gero eta erresilientzia handiagoak, Covid-19aren ondorioz sortutako murrizketen eta arazoaren aurrean (konfinamenduak, itxierak, hornidurak etenak eta inflazioaren hazkunde garrantzitsua urtearen azken txanpan), 2021an BPGA %6,0 hazi zen.



Txinak %8,1eko hedapena eskuratu zuen 2021ean, Asiako erraldoiaren hazkunde erritmorik handiena 2011tik, Pekinen %6,0ko helburua nabarmen gaituz, eta 2020ko %2,2ko hedapenarekin kontrastea. AEBek %5,7ko hazkunde izan zuten, 1984tik izan duten hedapenik handiena baita. Biek berreskuratu zuten pandemiaren aurreko maila.


2022ko lehen hiruhilekoan, nolabaiteko hoztea erregistratu daiteke. Izan ere, Txinak moteltzeko joera argia izan zuen 2021ean, urteko lehen hiruhilekoan %18,3ko tasa batetik azken hiruhilekoko %4,0ra igaro baitzen.

AEBETAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa


AEBETAKO BPGA 2021

%5,7



EBKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa




2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

Europar Batasunean, Alemaniak ere dezelerazio handia ezagutu zuen urtearen azken txanpan (%1,4 hazi zen, eta bigarren hiruhilekoan, berриз, %10,4), botila lepoek eta hornidura arazoez hango industria nabarmen kaltetuz. Hala ere, urteko balantzea positiboa izan zen (%2,8). Datu hori ez dator bat Frantziak lortutako hazkunde tasa handiarekin (%7,4), pandemiaren aurreko ekoizpen maila berreskuratu baitzuen, eta Euroguneak eta Europar Batasunak, oro har, erregistratutako %5,2aren oso azpitik geratu da. Espainia, bere aldetik, %5,0 hazi zen, aurreko urtean izan zuen %10,8ko beherakadarekiko hobekuntza garbia baita. Dena dela, pandemia aurreko ekoizpen mailak berreskuratzetik urrun dago oraindik.

EUROGUNEKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

ESPAINIAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

FRANTZIAKO BPGAREN HAZKUNDEA


Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

ALEMANIAKO BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021


Iturria: ELGE; BEA, Eurostat eta INE.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

Munduko ekonomiaren susperraldia motelduko da

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Urtarrileko txostenean, NDFk 2022rako munduko hazkundearen aurreikuspena beherantz zuzendu du eta %4,4an kokatu. Aitzitik, 2023rako aurreikuspena pixka bat igo du, %3,8ra arte.


Munduko ekonomiak espero baino egoera ahulagoan hasi du 2022. urtea. Omikron aldaeraren hedapena, kutsatzei eusteko ezarri diren murrizketak, hornidura arazok, energiaren garestitzea eta inflazio handia dira susperraldi ekonomikoaren erritmoan dezelerazioa eragiten duten faktoreetako batzuk.

NDFREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2021	2022	2023	2022	2023
Munduko ekonomia	5,9	4,4	3,8	-0,5	0,2
Ekonomia aurreratuak	5,0	3,9	2,6	-0,6	0,4
AEB	5,6	4,0	2,6	-1,2	0,4
Eurogunea	5,2	3,9	2,5	-0,4	0,5
Alemania	2,7	3,8	2,5	-0,8	0,9
Frantzia	6,7	3,5	1,8	-0,4	0,0
Italia	6,2	3,8	2,2	-0,4	0,6
Espainia	4,9	5,8	3,8	-0,6	1,2
Erresuma Batua	7,2	4,7	2,3	-0,3	0,4
Japonia	1,6	3,3	1,8	0,1	0,4
Garatzen ari diren herrialdeak	6,5	4,8	4,7	-0,3	0,1
Txina	8,1	4,8	5,2	-0,8	-0,1
India	9,0	9,0	7,1	0,5	0,5
Errusia	4,5	2,8	2,1	-0,1	0,1
Brasil	4,7	0,3	1,6	-1,2	-0,4

EKONOMIA AURRERATUEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

AE BETAKO BPGA


Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

EUROGUNEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Aurreikuspenen arabera, 2022an energiaren prezio altuek eta hornidura etenek bere horretan jarraituko dute. Orobat, eskaintza eta eskaria orekatu ahala inflazioak behera egitea espero da.

Epe laburrerako etorkizuneko agertokian, beheranzko arriskuak dira nagusi. Birusaren aldaera berriak agertzeak pandemia luza dezake eta arazo ekonomikoak sortzen jarraitu. Halaber, hornidura kateei buruzko zalantzek eta energiaren prezioen hegakortasunak ziurgabetasun handia sortzen dute inflazioaren ibilbidearen inguruan. Gauzatu daitezkeen munduko beste arrisku batzuk Europa ekialdeko tentsio geopolitikoak eta planetaren larrialdi klimatikoak eragin ditzakeen hondamendi naturalak dira.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022 2023

Iturria: NDF.



2021. urtea ona izan da eta ziurgabetasuna dago 2022rako

NDFk, urtarrileko txostenean, beherantz berrikusi du munduko 2022ko hazkundera, omikron aldaeraren bilakaeragatik eta horrek dakartzan murrizketengatik, energiaren garestitzeagatik eta inflazioaren igoeragatik, eta hornidura arazoengatik. Berrikuspena bereziki garrantzitsua da AEBetan (-1,2 puntu), Build Back Better politika fiskaleko programari babesik ez emateagatik, politika monetarioan izandako aldaketagatik (hemendik aurrera politika murriztaileagoa izango da) eta hornidura kateetan izandako etenaldiengatik. Txinan ere beheranzko berrikuspena nabarmena izan da (-0,8 puntu), kasu horretan higiezinaren merkatuko arazoengatik (Evergrande) eta Covid zeroren politikagatik.

Euroaren eremuak berrikuspen txikiagoa izan du (-0,4 puntu) txostenean, baina horrek ez du esan nahi arazorik ez duenik. **Urtarrileko PMI indize konposatua berriro moteldu da eta 52,4 balioan kokatu da, hedatzeko eremuan oraindik, baina azken hamaika hilabeteetako baliorik txikiena da.** Orain zerbitzuak dira irudi txarrena ematen dutenak (51,2), birusak eragindako mugikortasuneko murrizketengatik. Aitzitik, industria hornidura arazoak gainditzen ari da eta bi puntuko hobekuntza erregistratu du (55,8). Bi sektore horien egoera desberdina denez, Alemaniak, batez ere industrian espezializatu baita, asko egin du hobera hilabete horretan, eta Frantziak, zerbitzuetan pisu handiagoa izanik, emaitza okerragoa izan du. Gainerako herrialdeek nolabaiteko ahultasuna erakusten dute.

2021eko laugarren hiruhilekoko eta urte osoko hazkunderaren lehen zifrak argitaratzen hasi dira. **Oro har, datuak bikainak dira, pandemiak baldintzatutako 2020arekin alderatzen direlako.** Esate baterako, AEBetako BPG %5,5 hazi zen iazko azken hiruhilekoan eta urteko batez bestekoa %5,7 izan zen. Eurogunearen kasuan, hiruhilekoko tasa %4,6 izan zen eta urtekoa, berriz, %5,2. Espainiak, azkenik, %5,2ko tasa izan zuen laugarren hiruhilekoan eta %5,0 urte osoan. Aurreko zifrak ikusita, EAEko ekonomiak izandako hazkundera oso positibotzat jo behar da. Zehatzago adierazita, Eustatek argitaratutako aurrerapenaren arabera, laugarren hiruhilekoko hazkundera %4,5 izan zen eta urteko batez bestekoa %5,5.

Hileko laburpen honetan aipatu beharreko azken alderdi bat kontsumoko nahiz industriako prezioen bilakaera da. Lehenengoek %6,4ra arte bizkortu zuten igoera, batez ere argindarraren garestitzeagatik; azkenekoen, berriz, %12,7 egin zuten gora abenduan, eta tasa hori oso handia da, zalantzarik gabe. **Baina abenduko tasa ez da aurreko bi hilekoen oso desberdina, biak %12 eta %13 artean kokatu zirelako.** Beraz, agian uler daiteke moteldu egin dela industriako prezioen igoera handia, moteltzearen hasieraren atariko baita. Produktuen araberrako banakape-nak adierazten du energiaren eta kontsumoko ondasunen prezioak moteltzen ari direla, baina bitartekoek eta ekipamendukoek igoera bizkortzen jarraitzen dutela.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
BPG	-9,9	5,5	-8,1	-2,9	18,6	3,9	4,5
Barneko azken kontsumoa	-8,9	—	-7,0	-2,5	18,1	2,4	—
Familien kontsumoa	-12,4	—	-10,6	-3,7	22,6	2,1	—
Administrazioaren kontsumoa	3,8	—	6,5	1,6	5,2	3,5	—
Kapital eraketa gordina	-11,7	—	-8,5	-1,3	21,4	3,7	—
Barne eskaria	-9,6	—	-7,4	-2,2	18,9	2,7	—
Esportazioak	-16,1	—	-13,8	-2,4	30,1	12,5	—
Inportazioak	-15,4	—	-12,5	-1,4	29,8	10,2	—
Lehen arloa	-15,0	—	-28,1	-7,1	7,8	4,6	—
Industria eta energia	-11,2	—	-6,8	-1,1	30,2	5,5	—
Eraikuntza	-8,2	—	-6,5	-2,4	11,5	1,3	—
Zerbitzuak	-9,0	—	-7,7	-3,5	15,5	4,0	—
Balio erantsi gordina	-9,5	—	-7,6	-2,9	18,4	4,2	—
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-13,6	—	-12,8	-3,0	20,4	1,9	—
Enplegua	-7,7	5,2	-5,9	-2,1	16,6	3,5	4,3

ABENDUKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2021	2022				2022
	IV		I	II	III	IV	
BPG	4,6	5,6	6,2	6,4	7,1	6,8	6,7
Barneko azken kontsumoa	3,8	5,1	5,5	5,4	6,0	6,0	5,7
Familien kontsumoa	3,9	5,6	6,2	6,2	7,1	6,9	6,6
Administrazioaren kontsumoa	3,5	3,4	3,1	2,9	2,5	2,9	2,8
Kapital eraketa gordina	4,6	6,4	6,0	6,9	7,3	6,7	6,7
Barne eskariaren ekarpena	4,1	5,7	5,8	6,1	6,6	6,4	6,3
Kanpo eskariaren ekarpena	0,5	-0,1	0,4	0,3	0,4	0,4	0,4
Lehen arloa	4,4	2,2	7,8	-0,2	8,5	9,8	6,2
Industria	5,1	8,7	6,1	6,3	7,2	6,6	6,6
Eraikuntza	1,7	2,7	3,2	5,1	6,9	5,9	5,2
Zerbitzuak	4,7	4,8	6,4	6,6	7,0	6,9	6,7
Balio erantsi gordina	4,6	5,5	6,1	6,4	7,1	6,8	6,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,4	5,5	6,5	6,5	7,1	7,0	6,8
Lanaldi osoko lanpostuak	3,7	5,0	3,7	3,1	3,2	3,5	3,4
Landunak (BJA)	1,8	1,5	2,2	1,2	0,7	0,7	1,2

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022		2021	2022
Confebask	7,2	5,9	Funcas	5,5	—
Hispalink (BEGren aldak.)	6,7	5,3	BBVA	4,6	5,2
Laboral Kutxa	5,7	6,3	CEPREDE	4,1	5,9

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
BPG	-10,8	5,0	-8,8	-4,3	17,7	3,4	5,2
Kontsumo pribatua	-12,2	4,7	-10,1	-6,3	23,6	2,7	2,4
Kontsumo publikoa	3,3	3,0	4,7	3,8	3,7	3,1	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	-9,5	4,1	-5,7	-2,6	18,5	-0,6	3,7
- Aktibo finko materialak	-10,5	3,8	-6,3	-2,9	21,0	-1,7	2,3
- Eraikuntzan	-9,6	-3,0	-8,8	-9,7	9,2	-6,7	-2,8
- Ekipamendu ondasunetan	-12,9	15,5	-2,6	8,7	46,1	6,1	10,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	-4,3	5,6	-2,8	-1,3	7,9	5,5	10,4
Nazio eskaria (ekarpena)	-8,6	4,6	-6,5	-3,0	17,4	2,5	3,6
Esportazioak	-20,1	13,4	-15,3	-7,3	39,4	14,8	15,8
Inportazioak	-15,2	12,8	-9,5	-3,8	38,9	12,2	11,1

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

		2021	2022			2021	2022
AFI	5,0	6,0	Intermoney	5,2	6,2		
Axesor	4,7	5,5	Mapfre Economics	4,9	5,5		
BBVA	5,1	5,5	Oxford Economics	4,9	5,5		
CaixaBank	4,8	5,5	Repsol	4,8	5,2		
Cámara de Comercio España	4,7	5,5	Santander	4,8	5,8		
Cemex	4,8	5,6	Metyis	4,7	5,2		
CEEM-URJC	4,9	6,1	Universidad Loyola Andalucía	5,1	4,7		
CEPREDE-UAM	5,2	6,7	Consenso (batez bestea)	4,9	5,6		
CEOE	4,8	5,0	Gobernua (2021-07)	6,5	7,0		
Equipo Económico (Ee)	4,7	5,3	Espainiako Bankua (2021-12)	4,5	5,4		
FUNCAS	5,1	5,6	Europar Batzordea (2021-11)	4,6	5,5		
ICAE-UCM	5,0	5,9	NDF (2022-01)	4,9	5,8		
IEE	4,6	5,2	Consensus Forecast (2022-01)	—	5,6		

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: Analistas Financieros Internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CaixaBank, CEOE: Confederación Española de Organizaciones Empresariales, Comisión Europea, FUNCAS, Espainiako Bankua, CEPREDE, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Oxford Economics, Santander, Universidad Loyola Andalucía eta Metyis.

ESTATISTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021	2020		2021		
			IV	I	II	III	IV
AEB	-3,4	5,7	-2,3	0,5	12,2	4,9	5,5
Txina	2,0	8,1	6,4	18,3	7,9	4,9	4,0
Japonia	-4,6	—	-0,8	-1,8	7,3	1,1	—
Kanada	-4,9	—	-3,1	0,3	11,8	4,0	—
Europar Batasuna	-5,9	5,2	-3,6	-1,1	13,8	4,1	4,8
Eurogunea	-6,4	5,2	-3,9	-1,1	14,4	3,9	4,6
Alemania	-4,6	2,8	-1,9	-2,8	10,4	2,9	1,4
Frantzia	-7,9	7,4	-3,7	1,7	19,4	3,6	4,9
Erresuma Batua	-9,7	—	-6,4	-5,1	24,2	6,8	—
Italia	-8,9	6,9	-6,1	-0,3	17,3	4,0	6,4
Herbehereak	-3,8	—	-3,1	-2,3	10,7	5,1	—

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2022ko URTARRILA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
AEB	3,9	2,6	4,8	2,6	3,7	3,5
Japonia	3,1	1,5	0,8	0,7	2,6	2,5
Kanada	3,9	3,0	3,4	2,2	5,9	5,6
Europar Batasuna	4,0	2,6	2,9	1,8	—	—
Eurogunea	4,0	2,5	3,1	1,6	7,3	7,0
Alemania	3,7	2,5	2,9	1,9	5,2	5,0
Frantzia	3,8	2,0	2,2	1,5	7,8	7,6
Erresuma Batua	4,3	2,2	4,6	2,5	4,4	4,2
Italia	4,2	2,2	2,7	1,3	9,3	8,9
Espainia	5,6	3,6	3,0	1,5	—	—
Herbehereak	3,3	2,1	3,1	1,7	—	—

Iturria: Consensus Forecast.